

## ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 2/2014

**AKORDIOA, (...) JAUNAK, (...) ANDREAK ETA (...) ANDREAK ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI PLANTEATUTAKO AUZIARI BURUZKOA, BALORAZIO-BATZORDEAN HAI EK PARTE HARTZEAREN INGURUAN. BALORAZIO-BATZORDE HORI EUSKO LEGEBILTZARREAN ORDEZKATUTA DAUDEN ALDERDI POLITIKOEKIKO MENDEKOTASUN ORGANIKOA DUTEN FUNDAZIO ZEIN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO MODUA ARAUTZEN DUEN IRAILAREN 30EKO 164/2008 DEKRETUAREN 8. ARTIKULUAN XEDATUTAKOA DA.**

1.- 2014ko martxoaren 6an, posta elektronikoz igorritako mezu baten bidez, interesdunek kontsulta egin diote Etika Publikorako Batzorde honen (aurrerantzean, EPB) idazkaritzari.

2.- Kontsulta egiteko igorritako mezu horretan, aurreko paragrafoan aipatutako goi-kargudunek adierazi dute parte hartu behar dutela, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen irailaren 30eko 164/2008 Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoa aplikatze aldera (aurrerantzean, 164/2008 Dekretua) -uztailaren 13ko 200/2010 Dekretu bidez aldatu zena (aurrerantzean 200/2012 Dekretua)-, eta (...) diren aldetik, balorazio-batzordean. Izan ere, 164/2008 Dekretuaren babesean, hau du xede balorazio-batzorde horrek: 2013. urteko diru-laguntzen deialdian aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea.

3.- Kontsulta horretan zehazten denez, dekretu horrek "xedatutakoaren arabera, diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da, zenbait irizpide kontuan hartuta, eta lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 60 bitartekoa kalkulatzeko, matematika-formulak aplikatuta ebatzi behar dira". Eta kontsulta sinatu duten hiru goi-kargudunek aurre egin behar dioten dilema etikoak zerikusia du honekin: "Eskaera egin duen fundazioetako bat gu militante (*rectius*, afiliatuak) garen alderdi politikoaren mendekoa da".

Kontsulta sinatu dutenek adierazi dute deialdian parte hartzen duen fundazioetako bat haiek afiliatuta dauden alderdi politiko baten mendekoa dela, baina gaineratu dute hori hala izateak ez duela esan nahi betetzen dutenik "Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. artikuluan adierazten diren parte ez hartzeko arrazoi bakar bat ere". Hala ere, egokia iruditzen zaie "berriazko erabakia" eskatzea EPB honi, "aipatutako balorazio-batzordean gure parte-hartzea egokia den ala ez ebazteko".

4.- Etika eta Jokabide Kodearen (aurrerantzean, EJK) 16.4. ataleko bigarren tartekian jasotako komunikazio telematikoko mekanismoak baliatuz, EPBk erabaki hau hartu du:

## **ERABAKIA:**

### **I.- AURREKARIAK**

1.- EJKa, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartua 2013ko maiatzaren 28an egindako bileran, politikaren zentzu etikoa indarberritzeko xedeaz sortu zen, eta herritarrek beren erakundeetan konfiantza berreskuratzea du jomuga.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen zehazten du kodeak, horien jarduerak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezten dokumentu horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Azken xedea da zintzotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Gobernuaren irudi instituzionala zaintzeko, haren eraginkortasuna indartzeko eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza gal dadin eragozteko.

2.- EJKa oinarritzko bost balioen inguruan taxutu da –Zintzotasuna, Bikaintasuna, Politika eta Kudeaketa bat etorraraztea, Lidergoa eta Berrikuntza–, eta funtsezko sei printzipioen inguruan: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna, Kudeaketari lotutako Erantzukizuna, Gardentasuna eta Gobernatze irekia, Onestasuna eta Desinteres subjektiboa, Errespetua eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, kodeak jokabide, jarrera eta portaera ugari aipatzen ditu, eta horiek dira, hain zuzen ere, EPB honek erreferentzia gisa ezarri behar duen parametroa, beren borondatez kodeari atxikitako kargu publikodunek edo kodearen zehaztapenak egiaz betetzea nahi duten hirugarrenek batzorde honen esku jartzen dituzten auzi eta dilema etikoei erantzuteko orduan.

Horri dagokionez, Kodeak 16.3 ataleko lehenengo puntuan ezartzen du EPBa izango dela “oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, Kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du”. Era berean, atal bereko bosgarren puntuan ezartzen du batzordearen ardura izango dela “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez-betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

### **II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA**

1.- Interesdunek EPBren esku-hartzea eskatu dute, erabaki dezan etikoki zilegi den haiek parte

hartzea 164/2008 Dekretua dela-eta egindako diru-laguntzen deialdian parte hartzen duten eskaerak aztertzeko eta baloratzeko eratu behar den balorazio-batzordean, kontuan hartu behar baita parte hartzen duen fundazioetako bat hirurak militante diren alderdi politikoaren mendekoa dela.

2.- Komeni da adieraztea, batzorde honek aztergai duen gaia zehazki aztertzeari ekin aurretik, EJK-k interes-gatazkekin lotutako jokabide, jarrera eta portaera batzuk debekatzen dituen edo debekatzea exijitzen duen arren, arlo horretan indarrean dagoen araudia –eta, zehazkiago, inpartzialtasunik ezari, objektibotasun gabeziari edo interesen arteko gatazkari dagokion– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen bateraezintasun-araubideak berariaz erregulatzen duen arau juridikoan; arau hori, hain zuzen, legezkotasun-printzipioari jarraituz, lege mailako testu batean erregulatzen da.

3.- Horrenbestez, ez dagokio EPB honi erabakitzea 1. puntuan deskribatutako egoerak urratzen duen goi-kargudun eta zuzendaritza-kargudun publikoen bateraezintasunen alorrean indarrean dagoen ordenamendu juridikoa. Horrez gain, ez dagokio ebaztea ea kontsulta egin duten goi-kargudunek betetzen duten azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (aurrerantzean, 30/1992 Legea) 28. artikuluan xedatutako parte ez hartzeko edo errefusatzeko kasuren bat. Soilik dagokio aztertzea eta erabakitzea ea 164/2008 Dekretuan xedatutako balorazio-batzordean haien parte hartzea bat datorren EKJn jasotako balioekin eta printzipioekin eta bertan tipifikatzen diren jarrera, jardunbide eta portaerekin.

4.- Behin aztergaia zentratuta, EJK-k, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren printzipioak nabarmentzen dituenak, honako hau xedatzen du 5.2.1 atalean: “Erabakiak hartzeko prozesuan, eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, kargu publikodun eta parekatuek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera”. Arau hori, atal berean ezarritakoaren arabera, aplikatu egin behar da "bereziki, kontratazio-prozeduretan [eta] diru-laguntzak ebaztean".

Mandatu horrekin estuki loturik, onestetasunaren eta desinteres subjektiboaren printzipioekin zerikusia duen EJKren 5.2.4 atalak dioenez, goi-kargudunek eta parekatuek “eginkizunak zuzen betetzea eragotz edo traba dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dute, eta beharrezko urratsak egingo dituzte edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikienekoa izanda ere. Horren ondorio da, halaber, erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako baino ezin hartu ahal izatea, eta guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren, haren senideen, ezagunen edo lagunaren mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza”.

5.- EJKren 6. atalak, kargu publikodun eta parekatuen zintzotasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak biltzen dituenak, ezartzen du, halaber, kargu publikodun eta parekatuek jokabide eta portaera hauek izan beharko dituztela, bestiak

beste, zintzotasun-balioari eta inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei dagokienez:

- “Ez dute egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo favoritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo sor dezakeen ezer.
- Inoiz ez dituzte postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka erabiliko norberarentzako abantailak lortzeko; edo, bestela ere, abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat, betiere neurri horiek ez badaude babestuta indarreko araudi-esparruan”.

6.- Bestalde, Kodearen 11. atalak, onestasunari, desinteres subjektiboari eta interes-gatazkak eragozteari lotutako jokabideak eta portaerak zehazten dituenak, adierazten du azken horiek sortzen direla kargu publikodunek eta parekatuek “beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean”. Eta, jarraian, kargu publikodunek eta parekatuek izan beharreko jokabideak ezartzen ditu, interes publikoek eta interesdunak dituenek talka egiten dutenean edo egin dezaketenean.

Gehienak badaezpadako edo kautelazko neurriak dira, interes-gatazkak eragozteari helburu dutenak, jakina; baina baita goi-kargudunen eta parekatuen jardunbidean interes-gatazka sortzeko aukeraren inguruan sor litezkeen zalantzak edo susmoak errotik desagerraraztea ere.

Horiek irakurrita erraz antzematen da ez dutela soilik EJK-k ezarritako onestasunaren eta desinteres subjektiboaren estandarri begira sor litezkeen desbideratzeak eragozteko asmoa, eta, horrez gain, desbideratze horiek izate hutsaren inguruko zalantza oro ere uxarazi nahi dela.

Jokabide nabarmenki profilaktiko horien artean, hauek ageri dira:

- “Edozein erabaki edo jardueratan interes propioek eta interes publikoak talka egiten badute, horren berri eman beharko dute jendaurrean, eta inoiz ez dute ezer egingo, baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-gatazka sortzea.
- Ez du inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezake interes publikoekin, edo zalantzan jar badezake erabakiak hartzeko prozesuaren edo Herri Administrazioaren funtzionamenduaren objektibotasuna.
- Bere betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duten edo egin dezaketen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitezkeen kargu publikodun eta parekatuek berehala jakinarazi beharko diote hori Etika Publikorako Batzordeari, eta, idatzita ahal bada, gatazka horren berri eman beharko dute, edo, bestela, gutxienez, unean bertan edo etorkizunean balizko interes-gatazka bat egon daitekeelako zalantza jakinarazteko betebeharra dute.

Idatziak aipatu organo horren erantzuna jasoko du berehala. Interes-gatazka bat sortzen bada, edo

gatazka hori egon daitekeelako zalantza sortzen bada, kargu publikodun eta parekatuek, erakundearen izen ona zaintzeko kautelazko neurri gisa, ez dute esku hartuko ezer erabakitzeko edozein prozesutan, prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat sortzeko zalantza txikiena ere egonez gero.

- Kargu publikodun eta parekatuek, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku”.

7.- Nolanahi ere, komeni da bereziki aipatzea abstentzio-arauen bitartez —edo interes-gatazkari buruzkoen bitartez—, goi-kargudunen eta parekatuen objektibotasuna, inpartzialtasuna eta zintzotasuna bermatu nahi direla jardun publikoan. Horrez gain, ezinbestean hartu behar da kontuan, espediente batean eskumena baliatzeari uztea, subjektiboki pentsatuz parte ez hartzeko lehen aipatutako arrazoiak egon daitezkeela, baina benetan ez daudenean, funtzioak bete ez direlako egoeratzat jo daitezkeela. Eta horrek, legean xedatutakoaren arabera, beste balio batzuk urratzea eragin dezake; esaterako, zintzotasuna edo agindutako funtzio publikoan bikaintasunez jokatzea.

8.- Kontsulta egin duten goi-kargudunek 146/2008 Dekretuaren babesean egiten diren diru-laguntza eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko ardura duen balorazio-batzordean parte hartu behar dute, eta deialdian "alderdi politikoeikiko mendetasun organikoa" duten fundazioek zein elkarteek parte har dezakete; eta aztergai dugun egoera horretan, nabarmena da haiek berek ez dutela aukeratu batzordean parte hartzea, ezin baitute dagozkien erantzukizun publikoen artean zein nahi duten aukeratu. Guztiz kontrakoa. Izan ere, aipatutako Dekretuaren 8. artikuluan egituraz eta legez xedatuta dago —puntu hori aldatu egin da 200/2010 Dekretu bidez— kide anitzeko organo horren berezko kide direla honako hauek: (...).

Egia da, halaber, azken bi kasu horietan, xedatuta dagoela balorazio-batzordean goi-karguduna ordezkari dezakeela erakunde edo zuzendaritza bereko "teknikari batek". Baina ordezkotza ez dago xedatuta organoa osorik egongo dela ziurtatzeko, kide titularrek parte hartzen ez dutelako edo inhibitzen direlako. 146/2008 Dekretuak titularra ordezkari xedatzen du, eta "horren ordezkari" dio. Eta nahiz kontraesana iruditu, ordezkaria aukeratzea beti dagokio ordezkari izango den goi-kargudunari berari. Hortaz, Dekretuaren araua —puntu horretan, behintzat— argia eta zorrotza da: (...)ko zuzendaria, beti, eta beste bi zuzendariak, halaber, aipatutako erakundearen kide izango dira, baldin eta "horren ordezkari" erakunde edo zuzendaritza bereko teknikari bat aukeratzen ez badute. Balorazio-batzordeko parte-hartzaile dira, beraz, batzordearen berezko kide direlako. Parte-hartze hori, bestalde, bi modutan gauza daiteke: zuzenean eta pertsona horrek berak, derrigorrekoa (...)ko zuzendariari dagokionez; eta ordezkari baten bidez, goi-kargudun titularrak berak aukeratutakoa.

9.- Hiru kargu publiko horietan diharduten pertsonen balorazio-batzordea osatu behar ote duten etikoki neurtzeari dagokionez, jada neurtu zuten, nolabait, Legebiltzarrean ordezkari

dauden alderdi politikoeikiko mendetasuna duten fundazioentzako eta elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzeko dekretua idatzi eta onartu zutenek. Izan ere, erabaki zuten parte-hartze hori, printzipioz, derrigorrekoa izango zela eta erakunde horren berezko kide direlako dela hori hala. Komeni da horri buruz adieraztea mintzagai ditugun hiru kargu publikoak, hain zuzen ere, konfiantza politikoko goi-kargu gisa eratuta daudela Eusko Jaurlaritzaren antolaketa-arauetan; horrezaz gain, kargu horiek, printzipioz, gobernuan den/diren alderdi politikoan/politikoetan afiliatuta egon behar dute edo haien jarraitzaile izan edo alde egon behar dute. Eta hori horrela izanik, 164/2008 Dekretua onartu zenean, ez zen kontuan hartu balorazio-batzordean parte hartzea –egituraz eta legez eratu– gaitzetsi zitekeenik, ikuspegi etikoari dagokionez.

10.- Aurreko hori hala da, ziurrenik, bi arrazoiengatik. Batetik, aztergai dugun kasuan, ez da erraza egiaztatzea "interes pertsonala" dutenik ebaluazio-batzordea osatzeko hautatutako goi-kargudunek; ez, behintzat, administrazio-prozedura arautzen duten arauak adierazpen horri ematen dioten esanahiarekin. Eta bestetik, 164/2008 Dekretuak xedatzen dituen baldintzak bertan araututako diru-laguntzak emateko, oso zehatzak dira eta oso araututa daude; hortaz, ebaluazio-batzordeak apenas du tarterik iritziaren edo nahiaren arabera jarduteko. Azter ditzagun banan-banan bi arrazoi horiek.

11.- Ez dirudi erraza, inola ere, baieztatzea, aztergai dugun kasuan, interes publikoaren eta jarduneko goi-kargudunen "interes pertsonalaren" artean gatazka dagoenik. Lehenik eta behin, kasu honetan babestu beharreko interes publikoa –164/2008 Dekretuaren hasieran garbi adierazten dena–, hain zuzen, "alderdi politikoen mendetasun organikoa" duten fundazioak eta elkarteak sustatzean, laguntzean eta koordinatzean datza, argudiatuta "herritarren pentsamendu politikoa, soziala eta kulturala mamitzen eta garatzen laguntzen dutela, beren jardueraren bitartez". Ez da kontsulta egin duten goi-kargudunen ekimen autonomia, militante diren alderdi politikoiari lotutako fundazioarenganako faboritismotzat har zitekeena kasualitatez. Diru-laguntzak emateko prozeduran parte hartzen dute, hain zuzen, ordenamendu juridikoak xedatutako arau bat, legezkoa eta zorrotza, betetzeko. Arau hori jasotzen dute bai Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak (aurrerantzean, EAEAOL) – gastuen atalean, programa hau finantzatzeko zuzkidura ekonomikoa adierazten da–, bai 164/2008 Dekretuak berak, "Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoeikiko mendekotasun organikoa duten" fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen duenak.

Baina, gainera, ez dago garbi aipatutako dekretuan xedatutako balorazio-batzordeko goi-kargudunen parte hartzea kutsa daitekeenik kasualitatez babesteko "gai honetan interes pertsonala", eta interes hori izatea, halaber, alderdi politikoei lotutako fundazioak sustatzeko interes orokorrarekiko desberdina. Izan ere, 164/2008 Dekretuan araututako diru-laguntza eskatu duten fundazioetako batek alderdi politiko batetik mendekotasuna izan eta kontsulta egiten dutenak alderdi politiko horretan afiliatuta egote hutsak, ez dirudi, bere horretan,

azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluan adierazitako parte ez hartzeko arrazoi bakar batekin ere bat datorrenik. Eta puntu horri dagokionez, EPB honi ez zaio jakinarazi kontsulta egin duten goi-kargudunek parte ez hartzeko arrazoi espezifikoren bat dutenik, afiliazioaz gain, justifikatzeko aipatutako 28. artikuluko atalen baten babesa justifikatzeko, eta hala, inhibitzeko betebeharra babesteko. Parte ez hartzeko arrazoiak, besteak beste, dira: baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea, odol-ahaidetasuna edo ahaidetasuna izatea eta adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

12.- Batzorde honen beste erabaki batzuetan bezala, ardura publikoa dutenen zintzotasun, objektibotasun eta inpartzialtasunaren alorrean, EJKren irizpidea askoz zorrotzagoa da, administrazio-prozeduraren araudiak bere baitan hartzen duena baino. Kodeak ez du soilik ziurtatu nahi, gatazka-egoeraren bat gertatuz gero, interes publikoak lehentasuna izatea jarduneko goi-kargudunaren interes pertsonalaren edo partikularren aldean, baizik eta zerbait askoz ere zorrotzagoa: kudeatu beharreko interes publikoak beti-beti izatea lehentasuna beste interes-mota batzuen aldean, dela norberarena zein beste norbaitena, dela publikoa zein pribatua. EJKren xedea askoz ere anbizio handiagokoa da, administrazio-prozedurarena baino. Interes publikoaren eta interes pribatuaren arteko gatazka soila baino gehiago hartzen du kontuan, goi-kargudunak, dagozkion eskumenen arabera, kudeatu beharreko interes publikoaren erabateko lehentasuna defendatze eta sustatze aldera. Baina EJKa 2013ko maiatzaren 28an onartu zuten, eta beraz, 164/2008 Dekretua idatzi zutenek ezin izan zuten kontuan hartu; izan ere, bai lehendabizikoz idatzi zutena, bai hura aldatzekoa idatzi zutena –2010eko uztailaren 13koa da lehendabizikoa aldatu zuen Dekretua–, lehenagokoak dira.

13.- Aurreko puntuan adierazitako iritziari dagokionez, pentsarazi diezaguke EJKa askoz murriztaileagoa dela, 30/1992 Legea baino; beraz, kontsulta sinatu dutenek azaldutako egoera bezalakoak gertatzeko ez dago inongo aukerarik. Eta horrezaz gain, aplikatzerakoan ere lehentasuna duela, administrazio-prozeduraren araudiarekiko, etikoki zorrotzagoa delako; beraz, egoera horiek ez datoz bat Kodearekin.

Hala ere, azkarregi ateratako ondorioa litzateke.

EJKren 6. atalak berariaz baztertzen du erabakiak hartzeko betebeharra, baldin eta egoera hauek eragin baditzakete: "zuzenean edo zeharka, norberarentzako abantailak lortzeko; edo, bestela ere, abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat", betiere neurri horiek ez "badaude babestuta indarreko araudi-esparruan". Eta hori da, hain zuzen ere, aztertzen arin garen egoeran gertatzen dena. Lehen ere esan dugunez, indarreko araudi-esparruak, EAEAOLk eta 164/2008 Dekretuak osatutakoak, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua eta aginduak xedatzen ditu; eta horrez gain,

xedatzen du eskaerak aztertzeko, jakinarazteko eta baloratzeko ardura duen ebaluazio-batzordea, hain zuzen, EPB honi irizpena eskatu dioten hiru goi-kargudunek osatu behar dutela.

14.- Baina 10. puntuan ematen hasi garen arrazoiaren haritik, kontsulta egin duten goi-kargudunak balorazio-batzordearen berezko kide dira, halaxe arautzen duelako 164/2008 Dekretuak, eta arau horrek badu, halaber, beste arrazoi hau ere: diru-laguntzak emateko dekretuak arautzen dituen baldintzak zehatzak direnez eta oso araututa daudenez, ebaluazio-batzordeak apenas du tarterik arau kanpo jarduteko. Dekretua idatzi zutenek ez zuten inolako arazorik sumatu izendapen politikoko goi-kargudunetz osatutako balorazio-batzordeak – idazkaria izan ezik, "hitza du baina botorik ez"– kudeatzeko dekretuan bertan araututako diru-laguntzak. Eta ez zuten arazorik sumatu, hain zuzen, diru-laguntzak emateko xedatutako prozeduraren oinarriak bereziki araututa daudelako eta ezin direlako iritziaren arabera aplikatu.

15.- Izan ere, 164/2008 Dekretuak oso zorrotz mugatzen du diru-laguntzen-programak bere baitan hartzen duen eremua. Hau da, ezarritakoaren arabera (2.1 artikulua), soilik jaso ahal izango dituzte "Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteek", baldin eta haien helburuetako bat "kultur jarduerak garatzea bada" eta 3. artikuluan zehazten diren jardueraren bat garatzen badute. Programaren onuradun izan daitezkeen multzoa, beraz, oso txikia da eta ingurune garbikoak; izan ere, 2013. urtean, lau alderdi politikok eta hauteskunde-koalizio batek soilik zuten ordezkariak Eusko Legebiltzarrean. Puntu horri dagokionez, beraz, balorazio-batzordeak iritziaren arabera jarduteko duen aukera hutsa da. Izan ere, 164/2008 Dekretuak ez du batzordea izendatu diru-laguntzak jaso ditzaketen erakundeen artean hautaketa egiteko –jaso ditzaketen erakunde guzti-guztien artean–, baizik eta dauden funtsak multzo txiki baten eta diru-laguntzak arautzen dituen legeak ezin hobeto mugatutakoaren artean banatzeko.

Baina, horrez gain, 164/2008 Dekretuak arauak xedatzen ditu dauden funtsak multzo txiki eta zehaztutako hori osatzen duten fundazioen artean banatzeko, eta arau horiek ez dute iritziaren arabera jarduteko aukera askorik ematen. Kontsulta egin duten goi-kargudunek mezu elektronikoan adierazi bezala, 164/2008 Dekretuak "xedatutakoaren arabera, diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da, zenbait irizpide kontuan hartuta, eta lor daitezkeen gehieneko puntuazioaren % 60 kalkulatzeko, matematika-formulak aplikatuta ebatzi behar da". Beraz, diru-laguntzak iritziaren arabera emateko aukera, nabarmen txikia da, agerian geratu denez. Hori hala dela egiaztatzeko, nahikoa da Dekretu horren 7. eta 9. artikulua hitzez hitz irakurtzea:

**7. artikulua.– Diru-laguntzak emateko eta banakako kopuruak zehazteko prozedura.**

1.– Dekretu honek ezartzen dituen diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da. Horretarako, hots, eskariak hurrenkera jakin batean jartzeko, aurkeztutako eskabide guztiak elkarrekin alderatuko dira, baina



betiere 9. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan harturik.

2.– Kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, deialdiarentzat izendatutako gehienezko diru kopurua ontzat emandako eskabideen artean modu zuzenki proportzionalean banatuko du balorazio-batzordeak. Aipatutako diru-banaketa kasuan kasu lortutako puntuazioaren eta eskatutako diru kopuruaren arabera egingo da, horretarako honako formula hau erabiliz:

$$S_i = (E_i \times P_i) / 100$$

non,

$S_i$  = programa edo jardueretako bakoitzari dagokion behin betiko diru-laguntzaren zenbatekoa.

$E_i$  = kasuan kasu eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa.

$P_i$  = batzordeak programa edo jardueretako bakoitzari emandako puntuazioa.

3.– Aurreko atalean esandako moduan kalkulaturako diru-laguntzen baturak aurrekontuaren muga gainditzen badu, kasuan kasu eman beharreko diru-kopurua honela kalkulatu da:

$$S'_i = D \times \frac{S_i}{\sum_{i=1}^n S_i}$$

non,

$S_i$  = aurreko formularen arabera programa edo jardueretako bakoitzari dagokion behin-behineko diru-laguntzaren zenbatekoa.

$S'_i$  = programa edo jardueretako bakoitzari dagokion behin betiko diru-laguntzaren zenbatekoa.

$D$  = diruz lagundutako programa edo jardueren artean banatu beharreko zenbatekoa.

### 9. artikulua.– Balorazio-irizpideak zein azpi-irizpideak.

Ebazpen-proposamena egiteko, balorazio-batzordeak honako (azpi-)irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Kasuan kasuko aurrekontu-ekitaldiarekiko Eusko Legebiltzarrerako aurre-aurreko azken hauteskundeetan lortutako ordezkari (% 50).

Puntuazioa honako formula hau baliatuta aterako da:

$$P_i = (\text{aulki kopurua} \times 50) / E$$

non,

$P_i$ : Entitate onuradunetako bakoitzak ateratako puntuazioa.

Aulki kopurua: Kasuan kasuko fundazioa zein elkarte atxikita dagoen alderdi politikoak duen aulki kopurua.

50: Gehienezko puntuazioa.

E: Legebiltzarrean gehiengo ordezkapena duen alderdi politikoaren aulki-kopurua.

b) Pentsamendu politikoaren eta sozialaren ikuspegitik zein kulturalarenetik programak edota jarduerak duen interesa, hala nola entitatearen ibilbidea, gizartean duen txertatze-maila eta hizkuntza politika (% 30).

b.1.– Programaren edo jardueraren interesa eta garrantzia (20 puntu).

b.2.– Entitatearen ibilbidea, gizartean duen txertatze-maila eta hizkuntza politika (10 puntu).

c) Programaren edo jardueraren autofinantziakzioa (% 10). % 90eko autofinantziakzioak edo handiagoak gehienezko puntuazioa lortzea merezi dutela oinarritzat harturik, kasuan kasuko puntuazioa kalkulatzeko honako formula hau erabiliko da:

$$A_i (\%) = \{[(I_i - SC_i) \times 100] / G_i\} / 9$$

non,

A<sub>i</sub>: kasuan kasuko autofinantziakzioa, %tan adierazita.

I<sub>i</sub> = kasuan kasuko guztizko diru-sarrerak (Kultura Sailari eskatutako diru kopuruaren zenbatekoa barne),

16.- Aurreko puntuan agerian dagoenez, 164/2008 Dekretuak diru-laguntzak emateko xedatutako prozedura oso araututa dago. Izan ere, fase garrantzitsuenak, batetik, arau argien eta zehatzen bidez arautzen dira –esaterako, diru-laguntzak jaso ditzaketenen definizioa–, eta, bestetik, matematika-formulen bidez ebatzi behar dira; beraz, ez dago balorazio subjektiborako inolako tarterik. Hori hala da, egiaztatu dugunez, irizpideek eta azpi-irizpideek ezartzen dutelako zer jarduerari jarraitu behar dion balorazio-batzordeak, ebazpen-proposamenak emateko: lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 60 bitartean, prozedura-matematikoko hutsen bidez kalkulatu da, eta hortaz, zorrotz eragotzita dago iritziaren arabera jardutea.

Baina horrez gain, Dekretuak xedatzen du guztizko balorazioaren beste % 30 irizpide objektiboaren arabera neurtu behar dela; esaterako: "Pentsamendu politikoaren eta sozialaren ikuspegitik zein kulturalarenetik programak edota jarduerak duen interesa, hala nola entitatearen ibilbidea, gizartean duen txertatze-maila eta hizkuntza politika". Puntu horri dagokionez, matematika-formula ez edukitzeak ez du esan nahi balorazio-batzordearen iritzi askeak ordeztuko duenik; izan ere, arauak zenbait irizpide objektibo ezartzen ditu, eta haiek ere araututako kuantifikazio jakin bat bete behar dute: "Programaren edo jardueraren interesa eta garrantziak", 20 puntu; eta "Entitatearen ibilbidea, gizartean duen txertatze-maila eta hizkuntza politikak", 10 puntu.

17.- Hori hala dela ikusita, ez dirudi kontsulta egin duten goi-kargudunek 164/2008 Dekretuan araututako diru-laguntzak kudeatzeko ardura duen balorazio-batzordean parte hartzeak EJKa

urratzen duenik, urratzearen arrazoa 2013ko deialdian parte har dezaketen fundazioek gainerik duten alderdi politikoetan afiliatuta egotea bada behintzat.

Horregatik guztiagatik, Etika Publikorako Batzordeak erabaki hau hartu du:

### **ERABAKIA**

Lehena.- Interesdunek ez dute urratu EJKa, baldin eta (...) diren aldetik, 164/2008 Dekretuan xedatutako balorazio-batzordeko kide gisa jarduten badute. Izan ere, "indarreko araudi-esparruak babestutako" programa bat kudeatzea da haien egitekoa, eta ez dute aipatutako dekretuan definitutako interes publikoa ez den "interes pertsonala"; eta horrez gain, kontuan hartu beharreko prozedura argi eta garbi araututa dagoenez -fase batzuk matematika-formulen bidez ebatzi behar dituzte, eta beste batzuk irizpide objektiboen bidez-, iritziaren arabera jarduteko tarte hutsa da.

Bigarrena.- Guztiz aurkakoa gertatzen da; hau da, balorazio-batzordean parte ez hartzeak, hain zuzen, dagozkien egitekoak ez betetzea eragin dezake, legearen arabera uka egin ezinezko eskumena den aldetik; eta horrez gain, zenbait balio urratzea eragin dezake, dagokien funtzio publikoan zuzentasunez eta bikaintasunez ez jarduteagatik, bereziki interesdun baten kasuan, balorazio-batzordearen buru baita, 164/2008 Dekretuak berariaz xedatuta.

Etika Publikorako Batzordea

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 1a